

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

1. MAILA

2025/2026 IKASTURTEA

DIZIPLINARTEKO LANERAKO IKASLEAREN GIDA



K2 MODULUA

ESKOLA ETA CURRICULUMA

Moduluaren koordinatzailea: Oihane Fernandez Lasarte

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. MODULUAREN IRAKASLEAK	3
3. MODULU-LANAREN AURKEZPENA	5
4. MODULUAREN IKASGAIEN ZERRENTA	6
5. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK	8
5.1. Ikaskuntza helburuak	8
5.2. Moduluaren konpetentziak	8
6. EGIN BEHARREKO LANA	10
6.1. Lan-dokumentuaren sortzea	10
6.2. Lanaren ezaugarri formalak	10
6.3. Kronograma	11
6.4. Lanaren faseak	11
6.4.1. Bisitatu beharreko eskolaz kanpoko baliabidea	11
6.4.2. Kanpoko baliabidearen deskribapena eta eskaintza didaktikoaren analisia	12
6.4.3. Kanpoko baliabidearen analisia: irakasgai bakoitzaren ikuspegitik orientazioak	13
6.5. Ebaluazioa	15
6.5.1. Etengabeko ebaluazioa	15
6.5.2. Amaierako ebaluazioa	17
8. BIBLIOGRAFIA	17
9. ERANSKINAK	20
I. ERANSKINA. KANPO-BALIABIDEEN ZERRENTA	20
II. ERANSKINA. Hezkuntzaren Psikologia eta Didaktika Orokorraren zehaztapen taulak	24
III. ERANSKINA. Taldearen fitxa informatiboa	31
IV. ERANSKINA. Ebaluazio errubrika	33
V. ERANSKINA. TALDEAREN LEHENENGO KO-EBALUAZIOA	38
VI. ERANSKINA. TALDEAREN BIGARREN KO-EBALUAZIOA	40

1. SARRERA

Lehen Hezkuntzako "Eskola eta Curriculumuma" delako diziplinarteko lan honek 2. lauhilabeteko 5 irakasgai hartzen ditu bere gain eta bere balioa, guztira, 5 kreditukoa da (1. Irudia).

Naturaren Zientziak LH-ko ikasgelan I (6kr.)

Gizarte-Zientziak eta bere Didaktika I (6 kr.)

Hezkuntzaren Psikologia (6 kr.)

Didaktika Orokorra (6 kr.)

Matematika eta bere Didaktika I (6 kr.)

1. Irudia. "Eskola eta Curriculumuma" modulua osatzen duten irakasgaiak eta kreditu kopurua.

2. MODULUAREN IRAKASLEAK

Ikasgaia^a	Irakaslea	Helbide elektronikoa	Bulegoa	Taldea
Naturaren Zientziak LH-ko ikasgelan I	Lur Moragues	lur.moragues@ehu.eus	PDI-01	46
	Arantza Rico	arantza.rico@ehu.eus	B-7	46H
	Igone Palacios	igone.palacios@ehu.eus	B-12	47
Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I	Maddi Elorza	maddi.elorza@ehu.eus	PDI03	47
	Joseba Iñaki Arregi	josebainaki.arregi@ehu.eus		46H
	Aritza Saenz del Castillo	aritzsaenzdelcastillo@ehu.eus	1.2	46
	Unai Nabaskues	unai.nabaskues@ehu.eus		
Hezkuntzaren Psikologia	Ainara Duque	ainara.duke@ehu.eus	PDI03	46H
	Jon Xabier Basogain	jonxabierbasogain@ehu.eus	2.13	47
	Martin Sainz de la Maza	martin.sainzdelamaza@ehu.eus	PDI01	46
Didaktika Orokorra	Oihane Fernandez Lasarte ^b	oihane.fernandezl@ehu.eus	B2	47
	Imanol Galeano	imanol.galeano@ehu.eus	PDI01	46
				46H
Matematika eta bere Didaktika I	Uzuri Albizu	uzuri.albizu@ehu.eus	2.2	47
				46H
				46

^aLetra lodiz agertutako irakasgaietan modulu lana giltza da.

^bOihane Fernandez Lasarte K2 moduluaren koordinatzailea da.

OHAR GARRANTZITSUA: irakasleen posta elektronikoak ez dira INOLAZ ERE erabili behar tutoretza birtual bat lortzeko. Horretarako irakasleen tutoretza orduak jarri dira (GAUren kontsulta ditzakezue).

3. MODULU-LANAREN AURKEZPENA

3.1 Edukien azalpen laburra

Moduluko diziplinarteko lanak harremanetan jarriko ditu irakasgai bakoitzean alfabetatzeko diren edukiak, etapako ikaskuntzako oinarrizko printzipioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza curriculum arauemailea, horiek guztiak lotuz lehen hezkuntzako material eta baliabide didaktikoetan dauden ikaskuntza proposamenekin.

3.2 Proiektuari dedikazioa

Lanari emandako arduraldiari dagokionez, irakasgai bakoitzaren 6 kredituetatik, 1 moduluari emango zaio. Horri aurrez aurreko 10 eskola-ordu eta ikasgelaz kanpoko 15 ordu dagozkio, moduluko irakasgai bakoitzeko; ikasle bakoitzak, guztira, aurrez aurreko 50 ordu eta ikasgelaz kanpoko 75 ordu egin beharko lituzke. Proportzioan, irakasgaiek, gehienez, 1,6 puntuko kalifikazioa emango diote ebaluazioan moduluko lanari.

3.3. Lan-taldeen osaera

Lan-talde idealak 4 edo 5 pertsonakoak izango dira, genero-ikuspuntutik heterogeneoak, eta osaera ikasleek adostu beharko dute. Nolanahi ere, ez dira baimenduko 6 edo 3 laguneko taldeak. Alde horretatik, lana egoki egiteko mesedegarri izan daitezkeen irizpide batzuk kontuan izatea aholkatzen dugu: batetik, eraginkortasun maila egoki bat lortzea aurreikustea. Horretarako, lagungarri izan daiteke lehendik giza-harremana edo lan-harremana egotea zuen artean, eta baita taldeko kideak elkarrengandik hurbil bizitzea ere. Kontuan hartu beharreko beste irizpide bat, jakina, lanaren gaiarekiko dagoen interesak sor dezakeen kidesuna da. Lan taldearen funtzionamendua modulu honetan ebaluatzen den alderdietako bat da, eta zuen tutoreak hura egokia dela egiaztatzeko ardura izango du. Horretarako, prozesuan zehar bi ko-ebaluazio orri entregatu beharko dituzue. Lehena (ikusi [VI. Eranskina](#)) lehenengo entregarekin batera entregatuko duzue, eta bigarrena azken entregarekin batera (ikusi [VI. eranskina](#)). Lan taldearen ebaluazio hauek eragina izango dute norbanakoaren amaierako kalifikazioan. Modulu honetako irakasle-taldeak biziki gomendatzen dizue sortu daitezkeen arazo edo gatazkei ahalik eta lasterren irtenbidea bilatzea. Zuen tutorearekin edo modulu honen koordinatzailearekin harremanetan jarri honi buruzko zalantzak eta erabakiak hartu ahal izateko.

3.4. Kasua

Jarraian zuen lana simulatzeko kasua aurkezten da. Gogoratu, kasuan aurkezten den ahotsekin eraman behar duzuela lana aurrera, benetako egoera profesionala irudika dezazuen. Are gehiago, lan hau egokiro aurrera eramateko, lan honetan zehar zuek irakaslearen rol-ean jartzea komeni da.

“Derrigorrezko hezkuntzak daukan curriculum ikuspegi berria kontuan hartuta, zeina funtsezko konpetentzien garapenean oinarriturik dagoen, Mendilagun zentroko irakasle taldeak baliabide didaktiko berriak bilatzea erabaki du, etapa bakoitzerako jarrita dauden oinarritzko jakintzak eta konpetentzia espezifikoak jorratu ahal izateko.

Erabakiak hartu aurretik, baliabide didaktikoen inguruko informazioa biltzea erabaki dute, hainbat Hezkuntza Saitetik, administrazioako erakundeetatik, organismoetatik eta abarretatik haien esku jarri dizkietenak, Lehen Hezkuntzako arlo desberdinak lantzeko asmoz. Horretarako, curriculumaren oinarritzko jakintzak eta konpetentziak aztertuko dituzte modu kritikoan baliabide horietan, etaparako egokitasuna balioetsiz, eta esanez, bidenabar, alde onak eta hobe daitezkeenak.”

Zuen eginbeharra, Mendilagun ikastetxeko irakasle taldeko kide berri bezala, **baliabide didaktiko zehatza aztertu eta baloratzea izango da**: kanpo baliabideak (informazio puntuak, interpretazio zentroak, museoak...).

3.4.1. Galdera eragilea

Euren etapan landu behar diren etapako oinarritzko jakintzak, konpetentzia espezifikoak eta funtsezko konpetentziak era disziplinarteko batean lantzeko baliabide didaktiko egokiak aurki ditzakegu gure ikasleentzat?

3.4.2. Galdera gidatzaileak

Hautatutako baliabide didaktikoen bitartez, zein oinarritzko jakintza eta konpetentzia landu daitezke? Funtsezko konpetentzia horiek ikasteko zein modu desberdinetan erabiltzen dira testuliburuak eta kanpo baliabidea? Zein alde on eta zein hobetu beharreko aspektu dago baliabide bakoitzean?

4. MODULUAREN IKASGAIEN ZERRENDAA

Didaktika orokorra

- Irakaskuntzaren eta curriculumaren teoriak.

- Curriculum, oinarrizko kontzeptuak.
- Curriculum-politika: curriculum ofiziala. Curriculumaren oinarriak eta zehaztasun mailak.
- Curriculum diseinatu eta garatzea. Planifikazioa prozesu gisa eta produktu gisa. Curriculum diseinatu eta garatzeari buruzko ikuspuntuak.

Hezkuntzaren Psikologia

- Ikaskuntzaren eta ezagueraren eraikuntzaren teoriak.
- Eskolako motibazioa eta ikaskuntza.

Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I

- Gertaera soziokulturalaren alderdiak (inguruari erantzuna, ekonomikoa, erlijiosoa, ideologikoa, politikoa, artistikoa...) ezagutzea. Historian zehar aldatu diren fenomenoak baitira, maila globalean eta bertakoan.
- Herriarren hezkuntza demokratikoa eta pentsamendu sozial kritikoa lantzea, elkarbizitzarako tresna izan daitezen. Euskal Herriaren gaur egungo egoera aztertzea.

Naturaren Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I

- Lehen Hezkuntzako curriculum Naturaren Zientzietan.
- Lehen Hezkuntzako Naturaren Zientzien arloko materialen eta baliabide didaktikoen azterketa kritikoa.
- Iraunkortasunerako hezkuntza.

Matematika eta bere didaktika I

- Lehen Hezkuntzako curriculum matematikan.
- Lehen Hezkuntzarako diseinatutako kanpo-baliabide didaktikoen azterketa kritikoa eta konstruktiboa: matematikaren presentzia eta presentzia horren nolakotasuna, edo presentzia eza.

5. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK

5.1. Ikaskuntza helburuak

- Lehen Hezkuntzan landu beharreko etapako oinarrizko jakintzak, konpetentzia espezifikoak, baita funtsezko konpetentziak lortzeko ere baliagarri diren baliabideak ezagutu eta alderatzea.
- Hautatutako lehen hezkuntzako zikloaren ikaskuntzaren oinarrizko printzipio batzuk ulertu eta identifikatzea.
- Informazioa bilatu eta kudeatzeko teknikak erabiltzea.
- Bakarka eta taldean etapa honetako curriculumeko arlo batzuen oinarrizko printzipioak ezagutu eta aztertzea.

5.2. Moduluaren konpetentziak

Lauhilekoa amaitzean, ikasleek Lehen Hezkuntzako material eta baliabide didaktikoak aztertzen jakin beharko dute, irakasgaien estandarretara egokitzen diren eta curriculumeko araudietara egokitzen diren neurtu ahal izateko, eta, hala dagokionean, beste aukera batzuk proposatzeko.

Ikasleek hobeto ezagutuko dituzte etapa eta curriculumaren oinarrian dauden oinarri psikopedagogikoak. Halaber, gaitasunak garatuta edukiko dituzte, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan agertzen diren eragileak ulertu ahal izateko. Oinarrizko gaiei buruzko ikuspegi zabalago eta bateratzaileago bat eskuratzear gain, didaktika espezifikoak ezagutzen hasiko dira, eta ibilbide bat egina izango dute curriculum arautzailean zehar, eta, hala, beren lanbideaz hobeto jabetu ahal izango dira.

Hainbat baliabideren artean, bakoitzaren egokitasuna balioesten eta argudiatzen jakingo dute, hautatutako zikloan jakintza nola sortzen den ikusirik, curriculumeko gomendio arautzaileak nolakoak diren eta irakasgai espezifikoaren estandarretarako aztertutako baliabide didaktikoek proposatzen dituzten jakintza eta gaitasunak egokiak diren aztertuz. Lan horrek honako hau eskatzen du: baliabideei buruzko azterketa, alderaketa eta hausnarketa.

Hona hemen moduluko gaitasunak eta horiek garapen iraunkorrerako helburuei egiten dieten ekarpena jasotzen duen taula:

		Garapen Jasangarrirako Helburuak																	
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18
		Pobreziaren amaiera	Goserik ez	Osasuna eta ongizatea	Kalitatezko hezkuntza	Genero berdintasuna	Ur garbia eta saneamendua	Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea	Lan duina eta hazkunde ekonomikoa	Industria, berrikuntza eta azpiegitura	Desberdintasunak murriztea	Hiri eta komunitate jasangarriak	Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak	Klimaren aldeko ekintza	Itsaspeko bizitza	Lehorreko ekosistemeterako bizitza	Bakea, justizia eta instituzio sendoak	Helburuak lortzeko itunak	Hizkuntza eta kultur aniztasuna
Jarduera(k)	Moduluaren gaitasuna (ber)idatzi GJHein lotuz																		
Hezkuntza formalaren eta ez formalaren arteko aldeen, abantailen eta desabaitailen azterketa eta GJHei egiten dien ekarpenaren analisia	M1. LHko etapan ikaskuntza-irakaskuntzako oinarritzko printzipioak aztertu eta ulertu, <u>XXI. mendean behar diren gaitasun eta konpetentziak bermatzeko.</u> (C2H01.1)																		
Kanpo-baliabideen bisita eta hezkuntza-eskaintzaren azterketa	M2. Taldeka idatzizko txosten bat egitea Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoen azterketa eta balorazioari buruzkoa, <u>honek gaitasunei (oinarrizkoei zein zeharkakoei) egiten dien ekarpena aztertuz eta ebaluatuz, jasangarritasunerako hezkuntzaren ikuspegia barne.</u> (C2H02.2)																		
Txostenaren ontze prozesua.	M3. Ikasle talde batean modu aktiboan parte hartzea, zereginak eta erantzukizunak bere gain hartuz, <u>modu kooperatibo, autonomo eta eraginkorrean lan egiten ikasteko.</u> (C3H01.2)																		
Hezkuntza-eskaintzaren eta curriculumaren analisia, eta hezkuntza-eskaintzak GJHei egiten dien ekarpenaren analisia	M4. Gaurko hezkuntza sisteman Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoak aztertzea, <u>curriculumeko arlo bakoitzaren eduki, helburu eta gaitasunekin eta garapen jasangarrirako helburuekin dituzten loturak identifikatuz, baliabide didaktikoak aukeratzeko orduan gaitasun kritiko bat garatzeko.</u> (C3H01.1)																		

6. EGIN BEHARREKO LANA

6.1 Lan-dokumentuaren sortzea

Behin osaturik, lan-talde bakoitzak lanerako dokumentu bat sortuko du (Word bat, adibidez). Dokumentu hori taldearen kide guztien artean partekatuko da euskarri digital baten bitartez eta horren gainean lan egingo dute modu interaktibo baten bidez.

Urtarrilaren 30erako talde bakoitzak eGelara informazio hau igoko du ([III. eranskinean](#) eredua eskuragarri):

- Taldearen izena eta taldearen helbide elektronikoa
- Taldekideen izen-abizenak eta helbide elektronikoak eta bakoitzaren argazkia
- Taldekide bakoitzaren eginkizuna: informatikaria, koordinatzailea, idazkaria, bozeramailea, materialaren arduraduna...
- Funtzionatzeko arauak
- Biltzeko ordua, eguna eta tokia
- Aukeratutako kanpoko baliabidea (lehentasunaren arabera hiru aukera)

6.2 Lanaren ezaugarri formalak

Amaierako lanak jarraian proposatzen den egitura izango du. Bere luzerak ez ditu 20 orri gaindituko eta **2026ko maiatzaren 8rako** entregatuko da. Horretarako, lan-talde bakoitzak pdf formatuan eta behar den moduan maketaturik K2 moduluko eGelara igoko du (dokumentuan hurrengo informazio identifikatzailea jasoz: Ikas taldea -46, 47, 46H-; Taldearen izena; Deialdia). E-gelara igotzeaz gain, zuen tutoreari posta elektronikoz bidaltzea gomendatzen da.

1. SARRERA

Lanaren justifikazioa irakaslearen ikuspegitik (Eskolaz kanpoko baliabideek duten garrantzia Lehen Hezkuntzako curriculumaren garapenerako, aurkeztu zaizuen kasuan murgilduz) eta lanaren helburu zehatzak.

2. KANPOKO BALIABIDEAREN ETA BERE ESKAINTZA DIDAKTIKOAREN DESKRIBAPENA

Baliabidearen deskribapena, haren hezkuntza-eskaintzarena eta egindako jardueren deskribapena eta hauek funtsezko konpetentziak eta iraunkortasunerako konpetentziak garatzeko egiten duten ekarpena.

3. IRAKASGAI BAKOITZAREN IKUSPEGITIK ANALISIA

Gida honetan bertan proposatutako gidoia jarraituko da.

4. BALORAZIO OROKORRA ETA HOBEKUNTZARAKO ALDERDIAK

Curriculum eta ezagutza-arloen estandarrekiko egokitasuna, baliabideen inplikazio psikopedagogikoak, alderdi positiboak eta hobekuntzarako proposamenak, bai baliabideak eskaintzan duen hezkuntza programari dagokionean, bai eta gu irakasle talde bezala gure klaseetan baliabide honi lotuta, curriculum-aren hainbat oinarritzko jakintza eta konpetentzien garapenerako, bideratu ditzakegun lanketei dagokionean.

5. ERREFERENTZIAK

6. ERANSKINAK

Koebaluazio orriak eta bestelako eranskinak.

6.3 Kronograma

Lan kooperatibo honen garapenak hurrengo kronograma hau jarraituko du. Bitarteko entregarako dokumentua zein amaierakoa Moduluko irakasle guztien helbide elektronikora bidaliko dio talde bakoitzak pdf formatuan.

Ataza	Data edo epemuga
Aurkezpena	Urtarrilak 22
Gida irakurri eta talde fitxa igo	Urtarrilak 30
Tutoreen esleipena	Otsailak 6
Eskolaz kanpoko baliabidera deitu	Tutorearekin adostu
Eskolaz kanpoko baliabidera bisita	Martxoak 9-13ko astean beranduenez
Bitarteko entrega (1. eta 2. atalak osorik)	Martxoak 23 (tutoreari)
Feedbacka	Martxoak 30 - Apirilak 1
Tutorizazioa	Kurtsoan zehar, irakasgai bakoitzean
Behin betiko entregatze-epea	Maiatzak 8

6.4. Lanaren faseak

6.4.1. Bisitatu beharreko eskolaz kanpoko baliabidea

[1. Eranskinean](#) zerrendatuta ageri dira Euskal Autonomia Elkargoan eta Nafarroan Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako eskuragarri dauden kanpoko baliabideak. Talde

bakoitzak horietako bat aukeratu beharko du, eskola batekin batera bisita egin, eta bertan landutako gaitasun eta jakintzak aztertu. Hona hemen zenbait ohar:

- Kanpo-baliabidearekin hasierako kontaktua moduluko irakasleek egingo dute eta zuekin adostuko dute bisita egiteko eguna eta ordua.
- Kanpo-baliabidera bisita taldekide guztiek egin beharko duzue.
- Psikologiari eta Didaktika Orokorrari dagokien atala egiteko, arestian aipatutako irakasleari elkarriketa bat egin beharko diozue (zehaztapenak aurrerago).

6.4.2. Kanpoko baliabidearen deskribapena eta eskaintza didaktikoaren analisia

Galdera hauek aukeratutako baliabidearen deskripzio orokorra gidatu dezakete:

- Zer motatako baliabidea da?
- Zein da eskaintza didaktiko horren zentzua edo helmuga? Zein da baliabide horrek duen inpaktua edo eragina: Kanpo baliabidea urtero bisitatzen duten ikastetxe kopurua?
- Zein da baliabidearen kudeatzaile-hezitzaileek egiten duten balorazioa? Nola bideratzen da eskaintza Lehen Hezkuntzako zentroei?
- Zein da ikastetxeek egiten ohi duten balorazioa bisitaren ostean?
- Kanpoko baliabideak egiten duen eskaintzak ziklo, ordutegi edota ibilbideen egokitasunik baimentzen du?

Baliabidearen eskaintza didaktikoari dagokionez, galdera hauek gida moduan erabili dezakezue:

- Zer proposamen didaktiko egiten ditu?
- Behaturiko jarduera-sekuentzien deskribapen zehatza.
- Zer nolako ekarpena egiten die eskaintza didaktikoak funtsezko kompetentziei? (77/2023 dekretuan oinarritu). Zer lotura ikusten duzue iraunkortasunerako gaitasunekin? (Unesco 2017 edo Bianchi et al., 2022-en GreenComp dokumentuan oinarritu).
- Garapen Iraunkorrerako Helbururekin lotura esplizitua egiten da? Zuen ustez, bisitatutako baliabideak eta egindako jarduerak harremana dute 17+1 garapen iraunkorrerako helbururen batekin? Aukeratu gehienez hiru (UNESCO, 2017 eta UNESCO, 2015 dokumentuetan oinarritu).

6.4.3. Kanpoko baliabidearen analisisa: irakasgai bakoitzaren ikuspegitik orientazioak

Lanaren helburua zera da, baloratzea kanpoko baliabideek nola laguntzen duten funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak zein irakasgai bakoitzaren oinarritzako jakintzak garatzen. Horretarako, baloratu beharko da garatzen diren jarduerak egokiak ote diren irakasgaien eta ziklo konkretuen ezaugarrien ikuspegietatik. Idatzizko txosten honek azterketaren kontu adierazgarrienak batuko ditu.

Didaktika Orokorra eta Hezkuntzaren Psikologia

Lan honetan kanpoko baliabidearen eta ikastetxearen azterketa Didaktika Orokorra eta Hezkuntzaren Psikologiaren ikuspegietatik osatu beharko da, ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuak azpimarratuz. Kanpoko baliabidean egiten diren jardueretan eta irakasleari egindako elkarrizketan, behaketa txantiloian oinarrituta ([II. Eranskina](#)), informazioa jasoko da. Lanean jardueren deskribapena eta analisisa adibide zehatzen bitartez garatuko da.

Hau aurrera eramateko, bi izango dira aztertuko diren esparruak: lehendabizi, hezkuntza ez formaleko kanpoko baliabidea (II. Eranskina) eta, ondoren, hezkuntza formaleko ikastetxea. Honetarako, kanpoko baliabidearen bisita ikastetxe bateko ikasleekin egingo da eta, bertan, irakaslearekin kontaktatuko da bere ikastetxera joateko elkarrizketa egitera.

Naturaren zientziak LH-ko ikasgelan I

Euskal Elkargo Autonomikoaren Lehen Hezkuntzako curriculumak *Naturaren Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I* ikasgaiaren konpetentzia espezifiko eta oinarritzako jakintzak barneratzen ditu "Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza" delako atalean (77/2023 Dekretua).

Irakasgai honetatik agindutako lana zera da, kanpoko baliabideak zein ekarpen egiten dio Natura Ingurunearen ezagutzaren konpetentzia espezifikoei (45. orria), ebaluazio irizpideekin loturak eginez (49-53 orriak). Horren ostean, jarduera konkretu bat aukeratu beharko duzue, eta kontuan harturik zein ziklora bideratuta dagoen, deskribatu behar da jarduera horrek egiten duen ekarpena Natura Ingurunearen ezagutzaren oinarritzako jakintzei (53-60 orriak).

Hurrengo galdera hauek baliagarriak izan daitezke analisi hori burutzeko:

- Zientziarako konpetentziaren zein atal jorratzen ditu baliabideak?
- Aukeratutako kanpoko baliabideak zein oinarritzako jakintza jorratzen ditu Natura Ingurunearen ezagutzaren arloan?

- Zein hobekuntza edo iradokizun proposatuko zenukete aukeratutako jarduera eta kanpoko baliabidearentzat beren formakuntza-eskaintza hobetzeko? Zer hobekuntza sartuko zenukete bisita baino lehen eta ondoren eskolan egiten duzuen irakaskuntzan, baliabide horrek hezkuntza zientifikorako ematen dituen aukerak hobetzeko?

Gizarte zientziak eta bere didaktika I

Euskal Elkargo Autonomikoaren Lehen Hezkuntzako curriculumak Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I irakasgaien gaitasun espezifiko eta edukiak batzen ditu Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza delako atalean (77/2023 Dekretua).

Irakasgai honetan egin beharreko lana kanpoko baliabideak Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza jakintza arloa garatzeko ematen dituen aukerak aztertzea da. Horretarako, jakintza arlo honen barnean dauden konpetentzia espezifikoak erreparatu beharko zaie, zeintzuk landu daitezkeen justifikatuz. Halaber, hezkuntza dekretu berriak (77/2023 Dekretua) zehaztutako oinarritzko jakintza multzoen hausnarketa bultzatuko da, baliabideak hauen lanketan nola eragiten duen azpimarratuz. Lan honetan, bereziki Gizarteak eta Lurraldeak deituriko multzoan zentratuko gara. Azken multzo honetan GGZZk berezia duten gizarte aldaketari, bere zergati eta ondorioei, eta gizartean inportanteak diren egitura zein instituzioei eskainiko zaie arreta. Era berean, egungo munduaren erronkei, alfabetatze zibikoari eta kontzientzia ekosozialari egiten dion ekarpena azpimarratu beharrean gaude. Horretarako, jarduera konkretu bat aukeratu, eta kontuan harturik zein ziklori bideratuta dagoen, deskribatu behar da jarduera horrek egiten duen ekarpena zikloaren konpetentzia espezifiko eta jakintza arlo honen edukiei, beti ere era egokian justifikatuz.

Hurrengo galdera hauek baliagarriak izan daitezke analisi hori burutzeko:

- Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza jakintza arloaren barnean aukeratutako kanpoko baliabideak zein konpetentzia espezifiko jorratzen ditu?
- Jarduerak zein ekarpen egiten die arlo honen eduki espezifikoak –oinarritzko jakintzak-?
- Zein hobekuntza edo iradokizun proposatuko zenituzkete aukeratutako jarduera eta kanpoko baliabidearentzat? Atal honetan baliabideak ez badu modu esplizitu eta zuzenean gizarte zientzien edukia jorratu, aprobetxatu eta zuen proposamena egin hutsune hau zuzentzeko.

Matematika eta bere didaktika I

Geroz eta gehiago dira diziplinartekotasuna Lehen Hezkuntzako ikasgeletara eramateaz diharduten ahotsak; izan ere, hainbat hezkuntza proiekturen oinarritzko helburuetako bat bilakatu da.

Hala ere, oraindik bide luzea dugu aurretik, eta bide honetan egin beharreko eraldaketak ez dira edonolakoak. Izan ere, gertatu izan da diziplinarteko proiektuetan irakasgairen bat tartekatze arazoak izatea. Hori izaten da maiz matematikaren kasua; zergatiak hainbat izan daitezke: gaia modu abstraktu batean irakasten delako, ez delako irakasgaia egunerokotasunera hurbiltzeko ahalegin errealek egiten...

Hori guztia dela eta, etorkizuneko irakasle izango zareten heinean, interesgarria iruditzen zaigu gaiaren inguruan hausnartu eta proposamen bat diseinatzeko ahaleginak egitea. Horretarako, erantzun honako galdera hauei:

- Ba al dago eduki matematikoen lanketa espezifikorik?
- Egonez gero, zein oinarritzko jakintza lantzen ditu jarduerak? Zer ekarpen egiten die STEM konpetentziei?
- Ez baldin badago, irakasleak jabetu al dira gabezia horretaz? Egiten al dute kanpo-baliabide horrekiko lanketa matematikorik? Zertan datza lanketa horrek?
- Zer proposatuko zenukete zuek irakasgaia kanpo-baliabidearekin uztartzeko?

Azken galdera horri erantzuna emateko, sekuentzia didaktiko bat sortu beharko duzue, kanpo-baliabidea eduki matematiko baten lanketarekin lotuko duena. Horretarako honako pausu hauek eman beharko dituzue:

- Erabaki behar duzue zein oinarritzko jakintza landuko dituzuen sekuentzia didaktikoan. Horretarako, honako galdera hau egingo diozue zuen buruari: zein eduki da kanpo-baliabidera bisitan bizitakoekin uztargarriena?
- Oinarritzko jakintzak finkatutakoan, hauek nola landu pentsatu beharko duzue, kanpo baliabidea bisitatu aurretik, bitartean, eta ostean, jarduera desberdinen bitartez. Lanketa hori lotuta egon beharko da kanpo-baliabidera bisitarekin.

6.5 Ebaluazioa

6.5.1. Etengabeko ebaluazioa

Etengabeko ebaluazioa egin ahal izateko beharrezkoa izango da:

- Gutxienez 3 irakasgaitan matrikulatua egotea.
- Matrikulatutako irakasgai guztietan etengabeko ebaluazioa egitea.

Gida honetan zehaztutako kronograma izango da ikasleen erreferentzia. Ebaluazio prozesua bi fasetan banatuko da:

1. Fasea: Ikasle-taldeek lanaren 1. entrega egingo dute kronograman adierazitako datan eta gida honetan adierazitako prozedura erabiliz. Dokumentu horrez gain, [V. eranskinean](#) adierazten den taldearen **1. koebaluazio** fitxa bete eta entregatu beharko dute. Irakasle-tutoreak feedbacka emateko eguna eta ordua adostuko du ikasle-taldeekin.

2. Fasea: Ikasle-taldeek amaierako entrega egingo dute kronograman adierazitako datan eta gida honetan adierazitako prozedura erabiliz. Dokumentu horrez gain, [VI. eranskinean](#) adierazten den taldearen **2. koebaluazio fitxa** entregatu beharko dute.

Modulu-lanaren kalifikazioak ez du zertan berdina izan taldeko ikasle guztientzat. Ikasle bakoitzaren jarreraren eta lanari egindako ekarpenaren arabera izango da, eta hau amaierako kalifikazioan islatuta geratuko da. Hau egiaztatzeko ezinbesteko tresnak dira goian aipatutako ebaluazio fitxak.

Irakasle guztiek parte hartuko dute K2 lanaren ebaluazioan. Alde batetik, ikasle-taldearen tutorearen ebaluazio lana dago. Kasu honetan, tutoreak lan taldearen funtzionamendua eta txosten idatziaren 1-SARRERA, 2-BALIABIDEAREN ETA BERE ESKAINTZA DIDAKTIKOAREN DESKRIBAPENA eta 4-BALORAZIO OROKORRA ETA HOBEKUNTZARAKO ALDERDIAK atalak tutorizatzeko eta zuzentzeko ardura izango du. Horrez gain, bere ikasgaiari dagokion atala ere zuzenduko du (3-IKASGAI BAKOITZAREN IKUSPEGITIK ANALISIA). Bestetik, tutorea ez den irakasleek lana dago. Kasu honetan, lan guztien 3-IKASGAI BAKOITZAREN IKUSPEGITIK ANALISIA atalaren zuzentzeko ardura izango dute.

Moduluaren lanaren nota kalkulatzeko, atal bakoitzean eskuratutako puntuazioa batuko da (alderdi orokorrak (%50) eta 5 ikasgaien puntuazioa (%10 bakoitza), baldin eta gutxienez 4 ataletan gaindituta dagoen. Bi ataletan suspentso baldin badago, lana ez da gaindituko eta atal ezberdinetatik eskuratutako puntuazio baxuena izango da lanaren kalifikazioa.

Modulu-lanaren kalifikazioak irakasgai bakoitzaren kalifikazioaren %16 pisatuko du. Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostutakoa izango da, eta irakasgai bakoitzaren kalifikazioari gehituko zaio, (baldin eta irakasgaia gainditu bada). Lana gainditu bada eta irakasgaia ez, irakasgaia gainditu arte gordeko da lanaren nota.

Kontuan izan irakasgai batzuetan modulu-lana gainditzea ezinbestekoa dela irakasgaia gainditzeko, eta beste batzuetan ez. Modulu-lana gainditzea derrigorrezkoa ez den ikasgaietan ("ez giltzak": Gizarte Zientzien Didaktika I eta Didaktika Orokorra), lanaren kalifikazioa (suspentsoa den kasuetan ere bai) irakasgaiaren gainontzeko kalifikazioari batuko zaio, eta gaindituta ematekotan (10etik 5 edo gehiago), horixe izango da irakasgai horren azken kalifikazioa.

Modulu lana gainditzea derrigorrezkoa den gainontzeko irakasgaietan, lehen deialdian gainditzeko ez duten ikasleek hurrengo deialdian gainditu beharko dute, behar diren hobekuntzak eta zuzenketak txertatuz. Hobekuntza hauek giltza ez diren ikasgaietan islatzeko, ikasleak eskaera zehatza egin beharko dio irakasgai horien arduradunei.

Lanak ebaluazio-errubrikaren arabera ebaluatuko dira ([IV. Eranskina](#)). Alderdi hauek hartuko dira kontutan:

- Ikaskuntza-irakaskuntzako oinarrizko printzipioen analisisa eta ulermena.
- Ezagutza-arlo bakoitzaren eduki espezifikoa.
- Txostenaren egitura eta alderdi formalak*.

